


# GUADALUPE ANDRA MARI

# FRAY JUAN ZUMARRAGA

---

Zenon Uriguen  
pasiotarra



## MUNDU BARRIA

Oso jakingarria da Kristau fedearen asiera Mexikon. 1523 urtean amabi franzizkano etorri ziran ona. Urte batzuk geroago Dominicos. 1533 urtean Agustinos. 1572 urtean Jesuitas. Danak dauke elburu bat: Mundu barria, Jaungoiko barria, kristau fede barria, izkuntza barria. Eta gorengo maillan 1531ean Andra Maria, Guadalupeko Jainkoaren Amaren agerpen miragarria. 1531 urtean gotzain barri bat Fray Juan Zumarraga. Nor izango da erri onetan Kristoren mezulari gorengo?

**Guadalupeko Andra Maria.** Berak aukeratuko dau indio gazte eta pobre bat Juan Diego, Zumarraga gotzañaren bidez zorioneko Agerpenean Kristau fede barria sortzeko.

## AGERPENAK



Tepeyak muinoan Agertzen jako Juan Diegori Andra Maria goxogoxo itz egiñez “ni naz Andra Maria egiazko Jainkoaren Ama eta nai dot emen Eliza egitea nire maitasuna ta errukia oparo isuritzeko. Zoaz Gotzainaren aurrera ta esan Tepeyac mendian eliza bat egiteko”. Juan Diego badoa Gotzainaren aurrera esanez: Andra Maria agertu da Tepeyac mendian eskatuz egiteko Eliza bat. Au da bere agindua. Zumarraga gotzainak begirurez onartu dau Andra Mariaren mezua ta esaten dautso: **“Gauza bat bakarrik eskatzen dautzut: Ekarri señale-ezaugarri bat ori onartu ta sinisteko”**.

## LAUGARREN AGERPENA

Andra Mariak Juan Diegori: “Igon, mesedez, Tepeyac ganera eta an ikusiko dituzu lora ederrak, artu ta ekarri egidazuz. Juan Diegok ikusirik arrituta lora eder-bitxiak, Castillako larrosa ugariak ebaki, eta poliki-poliki batu zituan manta zuri (tilma), batean. (Etzan lorak loratzeko sasoia, ta ango arrien artean etzan sortzen lorarik). **Juan Diego joan zan Zumarraga gotzainaren etxera eta manta zuria-tilma zabaldurik jausi ziran lorak lurrera bere aurrean eta miraría!!!** Juan Diegoren manta zurian agertu zan, moldaturik, Andra Maria Jaungoikoaren Amaren antz-irudia, mantu ederrez jantzia. Zumarraga gotzainak ezaugarri bat eskatu eutson Juan Diegori. Ara or sekulako miraría ta ezaugarria. Belaunikatu zan oso arriturik ta fedez beterik. Zumarraga jaunak, sinismen biziak, erabaki eban Andra Mariaren irudia erriko elizara eroan eta biotz-biotzez Guadalupeko Amari Tepeiac ganean eliza bat egitea. Mirari onen oiartzuna lau aizetara zabaldu zan eta Tepeyac muinoan Guadalupeko Amaren eliza barria eraiki zan. Millaka lagunek datoz Kristau bateoa eskatu otoitz egin eta mesedeak eskatzera.

**Juan Zumarraga** 1548 urtean Mexikon arzobispo izendatua da Durangoko seme zintzo eta eragin aundikoa. Orain bai Guadalupeko Andra Mariaren zeruko deia ta mirariak ikusirik asi da, ekintza goragarriak egiten: eleiza barrian Andra Mariaren zoragarritzko irudia, mundu ontako iñork egin ta margoztu ez dauan miragarritzko moduan agertua, eliza barruan orain agertzen dana, begi-biotzak arritu ta irabazten dakiana. Zer egin? Zumarraga arzobispo jaunak ekarriko ditu Españatik Franzizkanoak. Andik urte batzuetara Mexiko 'k eukiko ditu ainbat gotzaiñak.

Zumarraga jaunak Andra Mariaren mirariak ta errien erromesak ikusirik konturatzen da Guadalupeko Andra Mariak ondo merezi dauala basilika bat Tepeyac ganean eta erriaren laguntzaz asi da Santutegia eraikitzen. Lan ori amaitzeko urteak beariko dira, baña nekearen nekez, agertuko da bere edertasuna Tepeyac ganean gaur zoragarri ta ikusgarri dan Guadalupeko Santutegia. Kontau eziñak dira Santutegi eder ontara datozen erromesak, Amerika latinaren nazio askotatik. Gaudalupeko Andra Mariari eraspeta ta fedearen indarra ikusirik Juan Pablo II aita santuak Amerika Latinaren Zaindaria ta Estrella de la Evangelización izatea erabaki eban.



**“Zu gorputza zara, ni espiritua”** esan da. Zer da ori? Gauza oberena da biekin bat egin, bizi ta eragitea. Euskal leen gaia gizaki osoa da.